

Euskal komikia Donostian.
Donostian barrena.

IBIL BIDEA



donostiakultura



7

Tolosa ibilbidea 107
IPURBELTZ. 1978

Euskal Herriko komiki aldizkari beteteranoena izan zena, hogeita hamahiru urtez hilabetero Erein argitaletxearen eskutik plazaratu zen, zehazki 1977. urtetik 2008. urtera arte. "Euskarazko komiki bat sortzeko ideia ikastolen mundutik etorri zen, ikastolak euskaraz irakurtzeko gogoa bultzatuko zuen zerbaiten bila baitzebiltzan" zioen Jose Lizundia, 1976-1999 bitartean Erein Argitaletxeko zuzendaria izan zenak. Ume eta gaztetxoei zuzendutako aldizkariak etapa desberdinak igaro zituen. Julen Lizundia, Anjel Lertxundi, Antton Olariaga eta Jon Zabaleta ibili ziren hasiera batean aldizkariari itxura ematen.

La que fue la revista de cómics más veterana de Euskal Herria se publicó durante 33 años de forma mensual de la mano de la editorial Erein entre 1977 y 2008. "La idea de crear un cómic llegó del mundo de las ikastolas que buscaban algo que pudiera incentivar la lectura en euskera" explicó José Lizundia, el que fuera director de Erein entre 1976 y 1999. Esta revista dirigida a niños y jóvenes paso por diferentes etapas. Julen Lizundia, Anjel Lertxundi, Antton Olariaga y Jon Zabaleta fueron algunas de las primeras firmas de la publicación.



8

Errotazar bidea 124
XABIROI. 2005



2005ean argitaratu zuen Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak "Xabiroi" komiki-aldizkariaren lehen zenbakia eta hiru hilabetekari bezala mantendu da ordutik hona. Gaur euskaraz argitaratzen den komiki-aldizkari bakarra da. Bere esparru nagusia irakurle gazteena da, batez ere 12 urtetik 18ra bitartekoena. Jaio zenetik Dani Fanok zuzentzen du aldizkaria eta bere orrialdeetan Asisko Urmeneta, Iñaki G. Holgado, Julen Rivas, Zaldi Eroa, Lope, Guillermo Gonzalez, Sanvi edo Adur Larrea bezalako ilustratzaile handiak argitaratu dute. Baita Iban Zaldúa, Harkaitz Cano, Joxean Muñoz, Arantza Iturbe, Pako Aristi, Eider Rodriguez edo Unai Iturriaga gidolariak ere. Aldizkariak gain, urtero aldizkari-ko serie baten albuma argitaratzen dute.

La Confederación de Ikastolas de Euskal Herria publicó el primer número de Xabiroi en 2005 y desde entonces ha mantenido su periodicidad trimestral. A día de hoy es la única revista de cómics que se publica en euskera. Su principal ámbito es el de los lectores jóvenes de entre 12 y 18 años. Desde su nacimiento Dani Fano dirige esta publicación en la que han participado ilustradores como Asisko Urmeneta, Iñaki G. Holgado, Julen Rivas, Zaldi Eroa, Lope, Guillermo Gonzalez, Sanvi o Adur Larrea o guionistas como Iban Zaldúa, Harkaitz Cano, Joxean Muñoz, Arantza Iturbe, Pako Aristi, Eider Rodriguez y Unai Iturriaga. Además de la revista todos los años se edita un álbum de una de sus series.

Donostia komikiaren euskal hiriburua dela erakutsi asmo du ibilbide honek. Hiri hone-tan lehenik prentsan eta berehala aldizka-rietan sortu zen euskal komikia. Bulego, tailer, etxe zein lokal haiek ezagutuko ditu-gu ibilbidean. Egun Komikigunea da Donos-tiako komiki-zaletasunaren ikur hirian.

Este recorrido quiere demostrar que Donostia es la capital vasca del cómic. El cómic en euskera surgió en esta ciudad, primero en la prensa y enseguida en revistas. Durante el itinerario vamos a conocer esas oficinas, talleres, domicilios y locales. A día de hoy Komikigunea es el símbolo de la afición por el cómic en Donostia.

- 1 Okendo kalea 22
PAN-PIN. 1960
- 2 Erregina Erregeordea kalea 2, 1.
HABEKO MIK. 1982
- 3 Legazpi kalea 5
Lehen euskal komiki tira / Primera tira cómica en euskera. 1894
- 4 Garibai kalea 28
TXISTU. 1927
ARGIA. 1921-1936
- 5 Hondarribia kalea 23, 1.
POXPOLIN. 1935
- 6 Errege-erregina katolikoen kalea 16
KOMIKIGUNEa. 2014

- 7 Tolosa ibilbidea 107
IPURBELTZ. 1978
- 8 Errotazar bidea 124
XABIROI. 2005

Kordinatzailea / Coordina:



Ibilbidearen sortzailea / Recorrido creado por: Mikel Begoña

1

Okendo kalea 22
PAN-PIN. 1960

Pan-Pin hilabetekaria Zeruko Argiaren eranskina bezala sortu zen 1960 urteko otsailean. Eragile nagusia Joseph Camino arnegiarrak izan zen. Bonifacio de Beizama, Argiako zuzendaria, eta Joseph izan ziren Pan-Pin proiektuaren lehen eragile eta zuzendariak. Gipuzkera eta napar-lapurterazko edizio bana argitaratzen ziren Pirineoen alde bietara zabaltzeko, baita bizkaieraz idatzitako orri bat gehigarri bezala ere. Pan-Pin Hondarrabin inprimatu zen lehenengoz "Los hijos de Álvarez Iraola" etxean, urte gutxira Donostiako "Valverde" inprimategira pasa zen arte. 2000-3000 arteko tirada izan zuen batez beste.

2

Erregina Erregeordea kalea 2, 1.
HABEKO MIK. 1982

HABE, Eusko Jaurilaritzak euskalduntze eta alfabetatzerako sortutako institutuak jarri zuen abian aldizkaria 1982an. Euskara ikasten ari zirenei begira egin nahi izan zen aldizkari/tresna didaktiko moduan, baina bide batez euskal komikia indartzea ere hartu zuen helburutzat. Erakunde ofizial baten menpe egoteak aldizkariari egonkortasuna bermatu zion. Oso emankorra izan zen Habeko Mikek betetako hamarkada euskal komikigintzarako. Bertan, eskarmen-tu profesional dezente zuten Euskal Herriko egileek plazaratu zituzten bere lanak, eta autore berrien lehen plaza ere izan zen zenbaitetan. Besteak beste, Astrain, Berzosa, Entrialgo, Fructuoso, Garay, Harriet (Gregorio Muro), Hernández Landazabal, Ibarrola, Mata, Mendi, Mina, Osés, Redondo, Resano eta Valverde jardun ziren.

3

Legazpi kalea 5
Lehen euskal komiki tiraren argitalpena. 1894

El Thun thun aldizkarian Biktoriano Iraolak (Pasaia, 1841-Donostia, 1919) bizileku eta lantoki zuen etxe honetan sortu zen 1894ko abuztuaren 5ean lehen euskarazko komiki tira. Donostiako Udaletxean lan egin zuen zinegotzi gisa, inprimategia zuen bere etxean bertan, eta zenbait literatur lan ere burutu zituen. Batez ere poemak, bitxikeriak, antzerki lan laburrak idatzi zituen. Biktorianok berak sortu zuen El Thun thun: seminario Koshkero aldizkaria, Aldizkari honetan kazetari, argitaratzaile eta irudigile lanak egin zituen.

La revista mensual Pan-Pin surgió como un suplemento de Zeruko Argia en febrero de 1960. Su principal promotor fue el arnegitarra Joseph Camino, Bonifacio de Beizama, director de Argia y Camino fueron los primeros impulsores y directores el proyecto Pan-Pin. Se editaba una versión en gipuzkera (gipuzcoano) y otra en napar-lapurtera (navarro-labor-tano) para cada uno de los lados de los Pirineos, también una página en bizkaiera (vizcaíno) como complemento. Pan-Pin se imprimió por primera vez en la casa "Los hijos de Álvarez Iraola" aunque a los pocos años pasó a la imprenta "Valverde" de Donostia. Tuvo una tirada media de entre 2.000 y 3.000 ejemplares.

1




4



5



2



3



6



4

Garibai kalea 28
TXISTU. 1927

Euskarazko lehen komiki aldizkaria sortu zen 1927an, oso bizitza laburra izan zuen. Argia aldizkariarekin batera, Anton Alaiza (1876-1926) arabarra izan zen aldizkariaren bultzatzaile nagusietariko bat. 1926an Argian bertan Txistu pertsonaiak iragarri zuen Txistu komikiaren sorrera, baina dirua lortzeko zailtasunak zirela eta azkenean 1927an argitaratu zen. Helburua euskalzaletasuna bultzatzea izan zuen umeentzako sortu zen lehen euskal komiki aldizkariak.

ARGIA. 1921-1936

1921eko apirilaren 24an Argiaren lehenengo zenbakia atera zuten Donostian, eta 1936ko uztailaren lehendabiziko garaia azkena, 797. zenbakia. John Zabalo, Txiki, Argia astekarian bere egutegiak argitaratzen ditu. Euskal pizkundearen garaia da, euskara hizkuntza modernoa eta garaikidea izateko bidean gauen.

5

Hondarribia kalea 23, 1.
POXPOLIN. 1935

Tolosan sortu zuen Ixaka Lopez Mendizabalek 1935, urtean baina bere egoitza Donostiara aldatu zen, Euskaltzale eta kultur eragile ere izan zen Ixaka, eta gazteleraz argitaratzen zen TBO aldizkariaren arrakastan erreparatuz (220.000 aleko tirada izatera heldu zen 1935 urtean), eredu euskal merkatura egokitu nahi izan zuen. TBO komikia kaleratzen zuen argitaletxera jo eta beharrezko baimenak lortu zituen komiki-aldizkariok marrazkien plantxak erabiltzeko; testuak euskaratu eta bertako kutsua ematearren, Txiki (John Zabalo) marrazkilariak egindako orri berriei aberastuta, bi urtez argitaratu zen aldizkaria gerrak betirako itxi zuen arte.

6

Errege-erregina katolikoen kalea 16
KOMIKIGUNEAK. 2014

Mendearren hasierarekin batera heldu zion Gipuzkoako Foru Aldundiak komikiaren altzorrak eskuratzen hasteko lanari. Lehenik Luis Gasca (1933-) komiki argitaratzaile eta kolezionistaren funtsa erosi zuen Aldundiak. Gerora euskal marrazkilarien funtsak, fanzineak, egungo komiki nobedadeak e.a. eskuratzeko lanetan dihardu. 2009. urtetik aurrera katalogazio eta kontserbazio lanak burutzen dira bertan. 2014an eman zitzaion irekiera ofiziala eta izaera berria Komikiguneari. Bertan daude hainbat komikigileen marrazkiak, originalak, tirak, komiki aldizkariak, komikiak eta komikiari buruzko materiala eta dokumentazioa.

El primer cómic en euskera vio la luz en 1927 aunque tuvo una vida muy corta. Junto con la revista Argia, uno de los principales impulsores de esta iniciativa fue el alavés Anton Alaiza (1876-1926). Precisamente en las páginas de Argia, en 1926, un personaje de nombre "Txistu" anunció el nacimiento de un cómic homónimo que, debido a problemas de financiación, no se pudo publicar hasta el año siguiente. El objetivo de este primer cómic en euskera destinado a los más pequeños era fomentar el euskera.

El 26 de abril de 1921 se publicó su primer número en Donostia y el último de su primera época, el número 797, en julio de 1936. John Zabalo, Txiki, publica sus calendarios en este semanario. Es la época del renacimiento vasco, el euskera estaba en camino de convertirse en una lengua moderna y contemporánea.

Ixaka López Mendizabal lo creó en Tolosa en 1935 pero su sede se trasladó a Donostia. Euskaltzale y agente cultural, López quiso importar al mercado vasco el exitoso modelo TBO (que llegó a tener una tirada de 220.000 ejemplares en 1935). Se dirigió a la editorial que editaba la revista para conseguir los permisos necesarios para emplear las planchas de la revista, tradujo los textos al euskera con el objeto de darles un matiz local y lo enriqueció con nuevas páginas creadas por Txiki. El cómic se publicó durante dos años hasta que la guerra lo cerró para siempre.